

# Romo Kultur Etxea



## Hasi dira Romo Kultur Etxearen eraikinaren fatxadaren, inguratzailearen eta instalazioaren lanak

Aste honetan hasiko dira Romo Kultur Etxea eraikitzeko 2A faseari dagozkion lanak. Fatxada, teilatuak, trenkadak, arotzeria eta instalazio lanak (klimatizazioa, argiteria, elektrizitatea, iturgintza, saneamendua, igogailuak...) egingo dituzte eta, esleipenaren arabera, 60 asteko epea dute horiek egikaritzeko.

Ia 5,5 milioi euroko aurrekontuarekin, fase honetako lanak 3,7 milioi eurotan esleitu dira, beraz, ia % 33ko aurrezpena lortu da. Fatxadarako bere ezaugarri estetiko eta teknikoetan oinarritutako materialak aukeratu dira. Horrela, proiektuaren eskultura ezaugarriak transmititzea ahalbidetuko duten material naturalak bilatu dira, egurats zabalarekiko eta denboraren joanarekiko erresistentek direnak eta mantentze-lan eta zaintza berezirik eskatzen ez dutenak, kostua eta egikaritze-lana ekonomikoak izan daitezten.

Zona erdi-lausoetakoak, lehen "geruza" gisa, zulatutako metalezko xaflaz osatuta daude. Iraunkortasun luzeko eta mantentze-lanik eskatzen ez duen materiala. Atzealdean, metalean zehar modu irregularran jarriko den beira tenplatu.

### Eraginkortasun energetiko handiko "geruza" bikoitza

"Geruza" bikoitzaren sistema zulatutako xaflaz eta beira tenplatzuko errezel-hormaz diseinatuta dago eta eraikinaren eraginkortasun energetikoa bermatu nahi du. Eguzkimendua, arkitektura proiektuarekin berarekin kontrolatzeaz gain, fatxaden tratamenduaren bitartez ere kontrolatzen da, fatxaden orientazioaren arabera. Harkaitza simulatzen duten zatiek eguzki gehiegia kontrolatzen dute eta dauzkaten zulotxoek argitasuna iragaztea ahalbidetzen dute eta bahetu egiten dute.

Eraikinak beira bikoitza izango du bigarren "geruza" bailitzan; kanpoaldean beira izango du eta haren gainean metalezko geruza ikusezina jarriko da, itxura neutrokoa, eguzkia kontrolatzeko eta emisibitate baxuko ezaugarriak emango dizkiona. Neguan isolamendu termikoa indartuko du, aldi berean, argitasun transmisio handiari eutsiz; udan, eguzkiaren kontrol eraginkorra ahalbidetuko du.

Halaber, xaflaren atzeko beirako zonek, forjatu bakoitzaren parean plataforma horizantal bat daukate, mantentze- eta garbiketa-lanetarako. Irtenbide horiekin batera, beste neurri batzuk ere izango ditu, hala nola, energia galerak saihesteko itxiturak, isolatzaile termikoak...; neurri horiei esker, klimatizazioaren kostuak optimizatzen dira, mantentze-lanei dagozkien gastuetan aurrezpen garrantzitsuak lortzen dira eta energia aurrezpen nabarmena lortzen da.



### Hormigoi armatuzko eskeletoa amaituta

Etokizuneko kultura-gunearen egitura (sotoa, beheko solairua eta lurrazalaren gaineko bost solairuak) amaituta dago. Proiektuaren 1. Fasean jasotako lanak, indusketak, zimenduak jartzea eta eraikinaren egitura jasotzea, alegia, amaitu dira, urtebeteko lanen ondoren. Lehenengo fase honen amaierako likidazioa 2,02 milioi eurokoa izan da; aurrekontua 3 milioi eurokoa zen, beraz, lizitazio tasarekiko % 33ko aurrezpena lortu da.

### Iritziak

#### Zasi Eskola Dantza Taldea

Berrogeita hamarrek hamarkada erdialdean sortu zen Zasi Eskola Dantza Taldea eta Getxoko talderik zaharrenetakoa da; gure taldearen sortzaileak Felix Etxebarria eta berriki hil den Jesus Andres izan ziren. Gaur egun, 3 eta 45 urte bitarteko 60 dantzarik osatzen dugu taldea; gainera, txistulari, dultzainero eta atabalari talde bat ere badaukagu. Urteko gure jardueren artean, nabarmentzekoak dira Santa Ageda, Aratuste, Dantzari Eguna, Olentzero eta Romoko eta inguruko auzoetako jaietako gure emanaldiak.

Gaur egun, Romoko egungo kultura etxean egokitutako lokaletan egiten ditugu entseguak; Kultur Etxea dagoen espazio libre txiki eta entsegetarako "baimendutako" ordutegietara moldatu behar izaten dugu eta, beraz, astean bitan bakarrik erabil ditzakegu,

ordutegi mugatuarekin. Halaber, taldearen materiala gordetzeko lokalik ez daukagunez, hainbat taldekideren trasteleketan banatzen ditugu gauza guztiak.

Gure ustez, guztiz beharrezkoa da Romoko talde eta elkarte anitzen jardueretarako espazio bat edukitzea auzoan, baina proiektu berria nahiko neurritz kanpokoa dela uste dugu eta ez zaiola gure auzoari egokitzen. Instalazio onak izango dituen espazio bat behar dugu, baina ez dugu eraikuntza erraldoirik nahi.



#### Gizatiar

Emakumeen elkarte soziokulturala da, 1995ean Romon sortu zena. Gaur egun, 2.231 bazkide eta 58 boluntario dauzka. Irabazi asmorik gabeko erakundea da eta gure helburuak emakumearen garapen integralera bideratzen dira, boluntariotzako eskola baten bitartez antolatutako gizarte partaidetzarekin, berdintasuneko eta elkartasuneko balioak defendatuz eta sustatuz; garapen pertsonala sustatzen dugu Gobelaurreko boluntariotzako zentroan, Romo Kultur Etxean, Gobelako kiroldegian, parrokia-aretoetan eta Carmen Vera akademian egunero ematen diren tailerren bitartez (hizkuntzak, literatura, sukaldaritza, yoga, antzerkia, dantzak eta gimnasia, besteak beste). Ostegunero topaketak antolatzen ditugu: eztabaidak, zine forumak, hitzaldiak, hizketaldia, kultura irteerak... Halaber, aktiboki parte hartzen dugu herriko jaietan eta egutegiko beste jai batzue-

tan (Santa Ageda, Aratusteak, Emakume Langilearen Eguna, Genero Indarkeriaren Aurkako Eguna...). Aholkularitzako juridikoko eta psikologiako zerbitzua ere eskaintzen dugu. Gizatiar elkarteak oso positiboki baloratzen du Romo Kultur Etxe berriaren proiektua, gartzen ditugun jarduerak guztiak lokal bakoitzean zentralizatzeak aukera emango baitigu. Gainerako elkarteentzako eta udalerrian gartzen diren kultura proiektuentzako ere positiboa izan daitekeela deritzogu.



### Ba al zenekien...

... zerbitzu-orduak gehituko direla, egungoa baino ordutegi zabalagoarekin, asteko zazpi egunetan irekita egongo direlako instalazioak?